



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TXOSTEN HAU DELA ETA: «ITUNPEKO ZERGEN DESBIDERAKETEN ANALISIA: ZIOAK, ETA GASTUAK FINANTZATZEKO EMANDAKO ERABILERA (2003-2005)»

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarreko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eskatuta, txostena egin du, alderdi hauek aztertzeko: zergen desbideraketak, haien zioak, eta gastuak finantzatzeko emandako erabilera, 2003-2005 hirurtekoan. Txostena aho batez onartu dute HKEEko osoko bilkurako kideek.

Lanaren ardatza, funtsean, bi atal hauek izan dira:

- Biltzea aurreikusitako diruaren eta benetan bildutakoaren arteko desbideraketaren analisia.
- Sobera bildutakoa erakundearen artean nola banatu den, eta erakunde horietako bakoitzak nola erabili duen.

Lehenengo atalari dagokionez, azterketa orokorra egiten da, ekitaldiz ekitaldi, desbideraketa horren zergatiko nagusiak zehaztuz. Ildo horretan, zehaztu da zer desbideraketa izan diren aurreko ekitaldiaren itxierako kalkuluan, eta diru bilketaren hazkundearen kalkuluan. Hauek dira atera daitezkeen ondorioak:

- Benetan bildutako diru kopuruak, betiere, aurreikusitakoak baino handiagoak izan dira. Hala ere, desbideraketa esanguratsuak hiru ekitaldi horietatik batean baizik ez dira izan. Beraz, aurreikuspenak zehurtzat jo daitezke.
- Zuhurtasun hori, ekarpenak eta diru bilketa lotzen dituen finantzaketa ereduari lotuta dago.
- Zergetako batzuetan izandako desbideraketak aztertzea, lagungarria izan liteke desbideraketak gutxitzeko.

Segidan, desbideraketak aztertu dira, lehendabizi aldundiz aldundi, eta gero zergaz zerga, izan diren desbideraketa konkretuak analizatuz.



Bigarren atalaz den bezainbatean, aztertu da ea erakundeen artean nola banatu diren sobera bildutako 1.484,8 milioi euroak. «Koeffiziente bertikala» aplikatuz banatu dira; Gobernuak jasotako zenbatekoa, hala ere, Elkartasun Funtsera egin duen ekarpena baino txikiagoa da. Diru bilketako gehikuntza horiek handitu egin dute tartean diren erakundeetako diruzaintzako geldikina. Gero, HKEEk erakunde horiei buruz urtero egiten dituen txostenetan aztertutako aurrekontu aldaketak finantzatzeko erabili dira.

Txostenak, azkenik, deskribatu egiten ditu EAeko finantzaketa eredia, aldundi bakoitzaren aurreikuspenak eta diru bilketa, eta 1996tik 2002ra bitarteko ekitaldietako aurreikuspenen eta diru bilketaren bilakaera. Txostenean, orobat, zehaztuta ageri dira diruzaintzako geldikinekin finantzatutako aurrekontu aldaketak (aurreikusitakoaren gainetik benetan bildutakoaren desbideraketak eragindako ekarpen gehikuntzak dauzkate aldaketa horiek).